

# Txakurraren buztanetik

Felix ZUBIAGA

«Señorita, uste-la pase bien». Gabiolako eskola mutilek errespeto handiz agur egiten eutsoen nesken mais-treari, bidean gurutzatzen jakeen bakoitzean. «ustela» horrek ba ekien zer esan gura eiken, baina «pasebien» beste horren esankizunaz ez egozen zihur. Ardura ere ez. Gudu aurreko aldi haretan, maisurik ezean, zati baterako jaia izan eben Gabiolako eskola mutilek.

—Inoiz ez baletor hobe; horrela ez dogu neskak legez eskolara joan beharrik eukiko —esan eban Kexus erre-menteriaren semeak.

—Eta sasiskolarik egin beharrik ere ez dogu izango-erantzun eban Erramunek.

Nahikoa zan auzoan txistu edo irrintzi bat Goiko Kaletik Beheko Kalera —horrela banatzen ebezan Urigue-netik Uribera artean egozen baserriak, Uriarte artean zela— eskola mutilok biderdi eginik, eguneko joku edo zere-gina asmatu eta burutzeko. Abadearen sideri-madaria ia heldurik egoela? Lehenengo horma osterik harrika, inork ikusi ez egiezan. Gero lurreko madariak bakarrik hartu. Eskolara joan behar eben neska koitaduek bisitatu behar zirela? Eskolako kristalen bat edo apurtzekotan bazan, isilik, sasi ostetik arpegirik ez erakutsi. Bake moduan ze-

la? Orduan bakoitzak gura eikena esan edo abestu eikean. Bardin harako «erdera merdera, talo beroa tripera!».

Abadearen amak-eta errementariaren seme Kexus emoten eben gaiztakeria guztien asmatzaile eta buru. Kexus amagandik umezurtza zan eta haren aita gurasoak burdina lantzen aroste gian eukan lanaren lanaz, ez eukan umearen heziketarako asti handirik. Etxekoandreek zenbat gura marmar egikeen Kexusez, baina euretatik zein ausartuko errementariaren sutegian pupuak mindurikatzen?

—Oraintxe konponduko zaitue...! Barrienik latzena eztenkadaz jaurti eutsen harako baten musturrera abadearen amak. —Astelehenetik eskolara hasi beharko dozue—. Eskuaz zemak egitsezan, Kexusi bereziki. —Horrek aterako dauzak masustak sorketo horri...

Maisu barria etorri zela, jakin izan ebenean, buru apal agertu ziran Gabiolako mutilak eskolan. Maisua balzko-tea zan, bibote itzela eukan eta trumoiaren dunbotsa hizkeran. Behingoan hasi jaken, hasi ere, oinastarri urtika:

—«Y no quiero oír más ese lenguaje de perros!»  
—inotsen albo bietara tximistaka—. «Oísteis?».

Mutikoek, nahiko uzkurtu, bekarkara begiratzen eutseen maisuak mahai gainean eukazan erregela-makila eta ugelari. Azpitik zurrumurrurik somatzen baeban, errege-laz mahaiari hots eginik, maisuak bildur ikarea sartzen eutsen mutikoei. Koldarrenak Kexusi begiratzen eutsoen ezean baiean, ea zer egin behar zen galdezka, bibotedunaren erretolika garatzak ez ebezan ondo ulertzen eta.

Errekreazinora urten eta mutilek, zurtz eginik, ez ekin zer egin, ez zetara olgau. Kexusi inguratzen jakozan, baina Kexus isilik egon, nesken jokuari begira. Neskak polito moldatzen ziran aponatara, nahiz sokatara, maistrea lagun eroela.

—«Uste-la pase bien, señorita...».

—Txo, hori ez dok orain esaten, bidean doalarik baino eta heuri gurutzatzen jakanean bakarrik.

Neskak barre egin eben, maisua eskola aterpean egoen txapel bako bidezaina legez, baina berak lako txistua samatik dindilik eukala.

—«Falta! Has hecho falta!» —agirika egin eutson neska batak apona lagunari.

Bere lekukotasuna gitxi bailitzan, ez urrundik begira egoken Kexusi begiratzen dautso neska salatariak, Beitiko Mirenek.

—«¿Verdad que ha sido falta?» —Buruaz errepika, baietza eskatzen eutson.

Kexusek mihina atera eutson Beitiko Mireni erantzunez eta albora eginik nesken ondotik aldendu zan.

Mutilek maisuaren begiradatik at, ederto moldatzen ziran euretara erdera merdera botarik, baina atezainaren txistua entzun orduko, haserako durduriak eukazan. Harako baten, Serafin Arkotxako, euskeraginen barrandatu eban maisuak.

—«A ver, tú —deitu eutson maisuak Serafini, atea itzi eta behingoan—. Ven aquí».



Serafin maisuaren idazmahira joan zan. Maisuak hatzamar puntetan eraztun bat erakusten eban, gora jasoka denak ikusi egien.

—«¿Véis esto? Este es el pajarito que me cuenta todo... —Maisuak bibote baltzaren azpitik agin zurien zerrenda erakusten eban goitik behetik—. Póntelo a ver cómo te va, señorito».

Serafini hatzamar nagian erastuna sartu eta lehenengo lezinoa osatzeko, esku bietako hatzak puntezeko gora adi ipinteko agindu eutson. Serafinek, okerrik susmatu ere egin barik, ipini ere. Maisuak erregela-makilaz dzast gotik behera esku batean eta dzast bestean, behin eta barriro. Serafinek ez ekian eskurik gordetzen, minaren minez ahora eroazan eta begietatik eriozan negar malkoez bustirik bakarrik goza eikezan.

Hatzamarretako samina soin guztira ornidu, eta neke bata besteaz ahaztuazoteko, maisuak ugela astindu eban Serafin, berna inguruak gorritu arte. «Horrek aterako deuzak masustak» amakuriaren iragarpen baltzak gogoratzen ebazan Kexusek, Serafinen arrantza eta dardarak ikustean.

—«Ahora ya sabéis lo que le va a pasar al señorito que mañana se me presente con este anillo. —Suzko begiradea jaurti eban maisuak eskola alde bietara—. Toma y que circule!».

Gabiolako mutilek buru makur urten eben eskolatik. Zoritxarra heldu jakena! Serafinek ez ekian zer egin hatzamarreko eraztunaz. Nahiko gurutz eukan hatzamar puntetako lazkeriaz.

Arratsaldean, saminak ibitu jakozanean, zuhurrago ibili zan Serafin Arkotxako. Ordurako eraztuna bera zan hatzamar nagia gorbizten eutsona. Erramon Leizeako euskeraginen deskuidatu zan ostera ere eta Serafinek, txaka, eraztuna erakutzi eutson.

—«Toma» —txakurrari oi legez, esan eutson Serafinek Erramuni.

Serafin zeruarren, aske sentitzen zan, ez bestearen zoritxarragaitik, baina pozarren, halan eta ere.

—Txo, nik uste nenduan, eskola landatik urtenez gero, bakoitza libre zala gura ebanez berba egiteko —aitzakiak joten eutsozan Erramunek, baina eraztunaren joku latzak oratu eban.

—Hatzazkolak ebaiten badozak min gitxiago hartuko dok bihar —aholkatu eban Serafinek Erramun—. Hatzazkol urtenak txarrak dozak erregalaren golpea eusteko.

Erramun ardura bizian hatzazkolak jaten hasi zan eta oskada artean ziriak urtika «quién quiere un anillo de oro» eta eskola lagunen hizketa modua barrandatzen.

—«A ver, señorito Tártalo...» —sare botaka Erramun Leizeako.

—Hemen nago!

—«Ahí e? —Barre sinua egin eutson Erramunek Kexusi, eraztuna opaka—. Tómallo pues, señorito...»

—Txotxo, holgetan izan dok eta... —Lehenengoz umezurtz begiak erakutzi ebazan Kexus Errementariaren semeak.

—Ta zer? —Lehenengoz jarritu jakon Erramun Arkotxako Kexusi.

—Ikuskok... —Mux egin eban Kexusek eta eraztuna hartu.

Kexusek eraztuna jaso eta beste eskola lagunak bera-gandik, legenardunagandik legez, alde egitea bat izan zan. Bihotzean sentidu eban Kexusek; olgeta garratza eritxi eutson halakoari. Umezurtz sentidu zan.

Gau haretan ama zenaz gomutau zan Kexus; bera ez litxakon aldenduko eraztun bategaitik. Lagunak barriz, artean joku guztien erdiko hartzen ebela, zelan aldendu jakozan eraztun txarri haregaitik! Hurrengo baten, eraztunetik aske eitela ere, zelan hartu eiken buruzagitzat? Edo hatarako ete ziran lagunak, batean hartu eta bestean saltzeko?

Hurrengo goizean Kexus murriz etorren eskolara. Eskolan sartu aurretik hatzazkolak jaten hasi zan. Eraztunagaz batera aholku hori hartu eroen hasibariak «min gixiago egingo deuk». Trumoia eroan barrutik eta ez eukan begiradarik agirika ebilkon maisuri begiratzeko ere.

—«Con que el inocente Jesús —hasi jakon maisua haginak erakusten—. Te vamos a atar a una cadena a ver si olvidas de una vez ese lenguaje de perros. Venga esas manos!».

Kexusek hatzamarrekin batera begiak jaso ebazan. Hatzamarrak bai puntezka ipini, baina bai azkar itzuri zartatekoa. Bat eta bi, biak itzuri. Hirugarrenean, txut ena! Han jardun eben maisuak eta biak, biak eta eskola mutil guztiak, tori eta tati zati baten, batean huts, bestean





bete, «aai! Aiii» arrantza eta barre. Arrantzak Kexusek betekaitik, barreak bere lagunek hutsakaitik. Maisuak zaplada bat emon eutson orduan Kexusi, hutsakarren, horren barregarri izten ebalako ikasleen aurrean. Bigarren zaplada huts, haizeari emon eutson maisuak. Barreak mutilen artean. Kexus bere eskola lagunek ondo inguratu sentitzen zan. Berotzen da maisua orduan, berotu, jartzen dau, jarri, horma kontra Kexus eta danba ostikadea. Beste bat, baina hormeari. Eskerrak Kexus, beti zuhur apartatu zela. Hango amorruek eta barreak. Amorrua lezinoa hankanean erabilarenena, barreak begiraleenak.

Holantxe igaro zan gitxi gora behera, Kexus zigortu ebeneko lehen eskola ordua eta «el erdera con sangre entra» heziketa araua bete zenekoa.

Errekrezinora oraindino bere gurutzaz urteten zela Kexus Errementarianeko, maisuaren txakurra, Listo, gurutzatu jakon bidean, buztenari eraginka, josta zale; «neuk aterako dauazat tripak hiri» marmaritu eban hagin artean Kexusek, mihinari oska egitsola. Inork ez eutson entzun, baina bere begien goritasunean irakur egiken, harako begiradean susmo egiken edonork. Ostikoari galgea ezarri behar izan eutson, tripa-tripan bertan ez joteko.

Berak ere ez ekian, zergaitik une haretan, eskolatik errekreazinora, erru guztiak maisuaren txakur jostariari egotzi behar eutsozan, ohiko laguna etzai bihurtu baili-txakon begi itxi-idegi batean.

Trebea zan Listo txakurra jaurtin harriak-eta jasoten. Maisuak berak ere hala eroaten eban maiz errekreazino aldia. Kexusek behin, zera guztiaz, behien harraska potzura



JESSE-84

jaurti eutson harria Listori, eta Listok uretan dzanga egini atera. Harakoan maisuak bai galdetu ere, ea nork jaurtin eban uretara bere txakurra.

—«No, señor maistro —azaldu eutson Kexusek dانا—. Piedra caído agua y él sacado».

Gogokoa izan jakon maisuari txakurraren artesia eta ondo ekusan ikasleek bere txakurrari eutsoen begirunea. Erastunaren aurreko aterrunean zan, izan ere.

Ekaitzaren zigorra jaso eta, maisuaren begiradatik apur bat aldendu zirenean, eskola lagunak, batzuk kupidaz, besteak eraztun txandearen bila legez, askatasun osoz berba egiten eutsela etorri jakozan.

—Ondo egin dautsak, txo —inotson Erramunek—. Eta ez Serafinek legez joten itzi.

Kexusek ez eutson erantzun. Ausaz euren ustetan, irabazle geldituko zan bera eta maisuaren arteko burrukan, baina Kexus ez egon zihur, ez beragaz eta ez halako lagunekaz. Eraztunetik askatzeko aukerea izan eban eta ez eutson inori emon.

—Txo, hemen danok gabizak euskeraz eta... Elgorria danok pasa behar dioaguk eta...— zirautson Erramunek; nonbait harako «Tartalo» ziriaren errudun sentitzen zan.

Kexus egun guztian eraztunagaz gelditu zan goiz eta arratsalde. Bera eta maisuaren arteko burrukearen trofeo legez gorde gura eban, harik eta haregaz, eraztun txarri haregaz, zer egin behar zan erabagi arte. Hurrengo egunerako ausaz ondo pentsauta eukiko eban, eraztunagaz zer egin edo nori emon, eskolara joan ala sasiskola egin, baina ez ekiozala erruki haizez etorri berari, bere adiskidetasuna erosi gurarik-edo.

Gau berean Kexusek Listo maisuaren txakurra behien potzutik harria ateraten ikusi eban, «quién ha tirado al agua a mi perro..., ese lenguaje de perros...» maisuaren agirikak, estarri garrastura eta guzti entzun ebazan Kexusek.

Goiz beratan ohetik jagikeran barre gaiztoa egin eban Kexusek bere artean. Hako berak bart amestua eta era-bagi ebana zelan bat etozen. Kexus besteetan baino goizago joan zan eskolara, eraztunagaz bidean olgetan. Hatzamarrean sartu-atereka edo aidean jaurti eta eskuetan hartzen.

Harri biribil batzuk ere poltzikoan sartu ebazan. Eskola landara heltzean txistu egin eutson Listori. Listo, maisuaren txakurra, buztanari eraginka behingoan pres-tatu zan jokura, Kexusen aurrean ausika. Kexusek harri kozkor biribila erakutzi, txua ipini, baina jaurti ez eutson bat ere jaurtiten. Listo «au, au, au» gero eta urduriago ausika.

—Zer ete dabil Kexusek? —Haren eraztunaren bil-durrez urrunetik begiratzen eutsoen eskola lagunek.

Ez euken bezperako prestakizunik eraztunaren txan-dea hartzeko. Handik minuto batzuetara zigor ordua izan-go zan. Eta gainera nork itzuri eiken zigorrik erdia eta bide batez barre eragin, Kexusek baino hobeto?

Kexusek lagun nahiko begira egola ikusi ebanean, o-tera ere Listori harria erakutzi, txua egin eta Listo ausiz amorratzen egola «hauxe dok unea» bere artean esan, eraztuna kendu, txeraz eta musuz Listori buztanean sar-tu eta harria jaurtin eutson putzura.



—«Tómalo, señorito Listo»! —zantzoa egin eban, danek entzun egiken.

Listo eraztundun lauoinkan joan zan behien potzura. Buruz sartu zan uretan eta, uretatik urtekeran, lokatz egalean bertan astindu ebazan urak eta harri biribila Kexusi ekarri eutson, baina ez eraztunik.

Kexusek laztan gehiago egin eutson Listori; harri biribil gehiago jaurti eutsozan, baina toki eratsura gainerakoak.

Eskola lagunek laster ulertu eben Kexusen barrabaskeria; Kexusek hatzamarrak aske igitzen eta besoak txori hegadan legez mogitzen ebazan.

—Ez diautsoguk maisuari ezer esango —ausartu zan Erramun esaten, baina eraztunaren ezusteko agerkundearen izutxuaz abots dardarean.

—Zergaitik ez? —ardurak jaurti ebazan Kexusek—. Ikusi dozuena esan behar dozue danak jakin dagien: Listo, maisuaren txakurrak eroan dauela eraztuna, euskeraz egin dauelako.

Maisuak txistua jo eta umeak eskolan sartu ziran. Maisuak biboteak astindu eta eraztun magikoari galdekizunak egiten hasi zan, «Tartalo, hemen nago» erantzuna entzun gura baileuan. Ez egon erantzunik baina; inor ez zan agertzen eraztundun.

—«A ver, Jesús, qué ha sido del anillo» —maisua zorrotz.

—Perro Listo ha dicho «au, au, au». Eso significar «esto». Tú desir, euskera lenguaje de perros, yo poner anillo a rabo de perro».



JESSE-84

Maisu beltzerana berdetu ere egin zan, Kexus halako ume zoztorrak, berari, Gabiolako maisu hautatuari, halako saputzak egiteaz, ume guztien barregarri. Ez eta inpernuko aineninoa balitzan ere. Lehenengo eskola aretotik urten eta txakurrarena egia ete zen, bere begiez ikusi eban. Benetan, Listo blei-blei egon, egotez, baina ez eukan eraztunik inondik.

—«¿Dónde está el anillo?» —maisua auzi-mahaian.

—«Perro saltar pozo y perder anillo» —Kexusek zintzo haizeaz.

—«Ven aquí!» —Maisuak epaia erregelaz mahaian jorrik.

—«A mí no; pegar perro» —Kexusek astoratuxe hegalelara begiraten eban.

Behingoan konturatu zan maisua, Kexus ez etorkola eskuetara, ardi mantzoa ulea moztera. Iges egin ez egion, harako Tartalo arditegiaren sarreran legez, atezain jarri zan, «ven aquí» zemaka, zigorretik ez eukala igesik adierastearren.

—«Yo desir padre» —erantzun eutson Kexusek eta katua baino arinago, lehiora salto eginik, alde egin eban handik zehar.

Maisua bere atzetik arrapaladan. Eskolaumeek le-hioetatik begira, askatasun aurreko festa ospatzen bailebilzan.

Martin errementaria ingudean tiriki-tauki burdin hotsean inhardun, maisuaren biboteak aroztegiko atean agertu zirenean.



—«Qué pasa, maestro?» —Hurreratu jakon Martin, esku batean bihorkak, bestean mailua, betarte guztia goritu.

Maisuak, barrura sartzan ausartu gabe, atetik kuskusean jarraian. Han egoan sutegia, han hauspoa, ingudea, idiak perratzeko sopinoa, baina Kexusik ez zan agertzen.

—«No, venía a ver si aquí hacen collares para perros». —Maisua behingoan ahaztu zan arazoaz, Martin errementaria aurrez-aur ikustean.

—«Collares para perros no, sólo «perras» para ganado» —erantzun eutson Martinek.

—Bueno... —esan eban orduan maisuak biboteak apalduz. —Otra vez será.

Maisuak, eskolara itzulian, harako «perras para ganado» Gabiolan ze hizkirimiri izan eiteken, ausnartzen etorran, ze esangura eta nori egotzia batez ere. Eta aroztetikiko sutegiaren goriaz eta hauspoaren handiaz harritzean, Martinen betarte goritua eta «yo desir padre» Kexusen jarkipen zorrotza oroitzen ebazan.

Eskolara heldu zeneko, maisuak formal-formal aurkitu ebazan mutilak. Ez eban aipatu eraztunik, ez ezelako zigorrik.

Gabiola guztian jakin zan Kexus, Errementariaren semeak, maisuari eta maisuaren txakurrari eginikoa.

—Hako inpernuko Txitxirrik egiteko be! —esan eban abadeak.

Tabernariak, medikuak, alkateak, sakristauak, abadearen amak eta beste amaikideek lehenengoz arrazoa emon

eutsoen Kexusi. Eraztuna ez eitela aipatu, guztien onerako, eskatu eben.

—Hori kaletarrekin-edo egin gura badue... —inoen baserritarrek—, baina Gabiolan ez dago señoritorik.